

Bizkaiko euskal idazle zaar batzuk

Amaseigarren gizaldiaren azken-
nerantza, Trento'ko Eliz-batzarra
—1545-1563— zala-ta edo, Iru-
ña'ko ta Kalagurri'ko gotzaiñen
aginduz, argitaratuta, ugari samar
ebiltzan kristau ikasbideak, edo
dotriñak; lenengo latinez eta erde-
raz baiño erakusten etzana, euske-
raz be erakusten asi ziran. Olan,
XVI'garren mende azkenetik, garai
artan euskaldun ziran errietan
—Naparruan, Araba'n, Gipuzkoa'n
eta Bizkaia'n— euskeraz erakutsi
izan zan.

Betolaza.—Lantxo bat idatzi
eban euskaltzale onek, «Doctrina
Christiana en romance y bascuen-
ce» deritxona. Bilbao'n argitaratu
eban, 1566'garren urtean. Liburu
lez ezta gauza aundirik, baiña ba-
dau bere balioa, izkuntzari se egin
ezkero, naiz ta berandu samarre-
koa izan.

Kalagurri'ko eliz-barrutiko buru
zan Pedro Manso gotzain jaunaren
aginduz osotu eban, antza denez.
Gozain onek, orduan bere men-
pean eukazan probintzietan, Ara-
ba'n, Gipuzkoa'n eta Bizkaia'n
beintzat, euskerazko dotriñak za-

baldu zituan. Baita 1602'garren
urteko gotzain-batzarraren guraria
zanez, aurrerantzean kristau dotri-
ñak urtero euskeraz eta erderaz ar-
gitara emoteko agindu be. Gaiñera,
gotzain berberak bere agindu or-
tan aitatzen dauanez, lendik be be-
re aldian orrela egiten zana zan.

Olantxe egiña dogu Betolaza ira-
kaslearen dotriña, gotzaiñaren
mandatuz euskerara biurtua, ta sa-
rri samar argitara emonikoa. Urte
batzuk dirala, Mitxelena'k argita-
ratu eban barrero be.

Andres de Poza.—Orduña'ko se-
mea. Erderaz idatzi eban arren,
euskeraren aldeze amorratua gen-
duan. Bere liburua: **De la antigua
lengua, poblaciones y comarcas de
las Españas** (Bilbao, 1587). Euske-
ra, gaur Espaiña lur-buru guztiko
izkuntza zaarra ei dogu bere ertiz
Euskal hasere zaar batzuk be sartu
zitian. Liburu onretan, maite bai
ebery euskaldunon izkera.

Orduña ondoren dagon Lendiañe-
Beako'n jaio zan, Mendizola'k
1595'gneko urtillaren 18'an. Lege-
gizona zala be, oso ikasia ta itua

zan matematika, izar-jakintza ta itxas-gauzetan. Bizkai osoko letraua ta Donosti'ko itxas-eskolako maixu izan zan, luzaro samar. Kosmografu ospetsu lez, **Hidrografía** (Bilbao, 1585) idatzi eban ale bitan, 1675'an barrero be argitaratua.

Bizkai'ko atsotitz bilduma zarra.—Ona esaera zarrez osoturiko txorta bat, **Refranes y Sentencias** izenakin, 1596'an, —nok ez daki— argitara emona. Bizkai aldeko errefrau bilduma da. «Itza ez ezik —diño Mitxelena'k—, bakan xamarra da liburua bere ere: gure egunotan beiñipein eztu iñork ale bat besterik ezagutu, Alemania'ko Darmstadt'en zegoena» (**Euskera**, 1961, 9 orr.)

Esaera zarrak erderaz be azalduak dagoz. Izen-buru osoak onela diño: «Refranes y Sentencias comunes en Bascuence, declaradas en Romance con números sobre cada palabra, para que se entiendan las dos lenguas».

Geienik ondo azalduta daukaguz, eta beste bildumakaz ez daber zer ikusi aundirik; beraz, euren jatorria ta iturburua ezaguna yakun arren, bizkaieraz dagoz eta asko jatorrak dirudie. Ba-dira, gairiñera, sail onetan itz bakanak, argirik naikoa emoten dauskuenak. **Jopu** itza, esate baterako, bilduma orretan dator; au da, otsein, morroi esan nai daualarik: «Etxean jopua ta oillarra/ urte betean asko da».

Gaur irrikaz gabiltz gisa onetako lanetan. Bedi, nai ta ezkoa ezpada be, gure izkuntzaren onerako. Adizkiz, izkeraz eta joskeraz, batez be, jakingarria yaku gaur be bizkaitar atsotitz bilduma zar au.

Urria, exkasa ete gure literatura zarra? Ba leiteke. Baiña... baita euskaldunon itxikeriz gitxi aztertua be. Urre-koskorak ditugu, alan be, ezetsi bear ez ditugunak.

Igotz

